WALDIren SEKRETUA

Bazen behin oso agure aberats bat. Waldi zuen izena. Lodikotea eta beltzarana zen. Bere haragi biguneko aurpegi biribil eta masail-gurian begitxo bixi-bixi batzuk ageri ziren. Suminduta zegoenean, bere sudurreko haize-bortitzek bibote sarri zurizta hura astintzen zuten.

Bere fortuna ikaragarriaren zati bat bere aitarengandik jaso zuen, hil arte aski gizon boteretsu eta eragin handikoa izan zenarengandik. Gainerakoa berak irabazia zuen, bizitza luzean zehar mundu osoan barna ibilia baitzen urrea eta diamanteak saldu eta erosten. Lurreko txokorik urrunenak bisitatzeko eta ezkutuko sekreturik handienak ezagutzeko aukera izan zuen lanari esker. Sekretu horietako batzuek bere negozioekin zuten zerikusia, baina beste batzuk, beretako garrantzitsuagoak zirenak, landareekin lotuta zeuden. Nolanahi ere, jakin-min handiena eragiten ziotenak paradisuko lorategiko hazi misteriotsu haiek ziren.

Natura zen Waldi agurearen pasiorik handiena, bere seme-alabez gainera, eta gehien maite zuen tokia bere etxea inguratzen zuen finka handia zen, aitaregandik herentzian hartu zuen hura.

Waldik ardura handiz landua zuen, lorategi ezin ederragoa egin arte.

Negozioetatik jada urrundua, jardunean egoteko pizgarriak hantxe zituen. Urteak joan urteak etorri, landare ezin apartagoak eskuratzen joan zen. Harik nahi bezala landatu zituzten lorezainek, agurearen begiradapean, baita kimatu eta ureztatu ere, handitu behar zutena handitzeko, ez gehiago ez gutxiago.

Denek goraipatzen zuten bere lana, baina bera ez zegoen pozik erdietsitakoarekin. Bazen laketzen ez zuen zerbait. Bere aurpegi biribilean bazen atsekabea erakusten zuen zerbait, ezkutatzea lortzen ez zuena. Edo, beharbada, bizi izan zituen energiaz beteriko urte haien oroimina zen; urte haietan bidaiak egin zituen, jende bikaina ezagutu zuen eta esperientzia asko bizi izan zituen.

Merkatari aberats okituak lau seme-alaba izan zituen: Amir, Salom, Aisha eta Ralik. Laurak indartsu eta osasuntsu hazi ziren. Haietaz harro zen eta zahartzaroan poztasuna ematen zioten. Familia batua zen. Waldi agureak egin eta gauzatzen zuen guztia beraiek eta bidean ziren bilobak gogoan egiten zuen.

Izan ere, agurearen lehen hiru semeek jadanik bazuten familia. Aldiz, seme gazteena, Ralik, ezkongabe zegoen eta aitaren etxetzarrean bizi zen.

LIVEWORKSHEETS

Emaztea hil zenetik, Waldi agureari minak ugaritzen hasi zitzaizkion; gero eta gehiago ziren. Hori dela-eta, semeei negozioen, hornitzaileen eta bezeroen gaineko sekretuen berri ahalik eta lasterren eman behar zien. Bereziki, landareez zituen ezagutzak transmititu behar zizkien, hura baitzen bere altxorrik preziatuena.

Hala ere, bazen erakustea kostatzen zitzaion zerbait. Horretan hasten zenean, ezin zuen hitzik atera, mingaina lehortzen zitzaion eta ezin izaten zuen hitz egin.

Sekula partekatu ez zuen sekretu bat zen; ez zion ezta emazte zenduari ere esan, ez baitzuen hark sufritzea nahi.

Aisha izan zen aitaren kezkaz ohartzen lehena; erne segituko zuen zergatia jakin arte. Bere alabak aitonari arratsaldero lagun egiten zion etxaldean, paseoan. Lagunduta egon arren, agureak pentsakor segitzen zuen, asaldatua. Ez zuen bakerik.

Azken eritasunetik, Waldik nahiago zuen baratzeetan batetik bestera ibili; barazkiek, loreek eta fruta-arbola ilarek ikuspegia gozatzen zioten eta ez zen batere nekatzen.

Aisha konturatua zegoen aita beti gelditzen zela kanpoko hesitik hurbil landatutako hiru udareondoren aurrean.

Lorezainek gainerakoak bezala zaindu eta maiz ureztatzen bazituzten ere, ez zuten sekula zuhaitz horietatik udarerik jan. Madarikazioren bat ote zuten?

– Udareondo hauek zer oroitzapen ekartzen dizute, aita? –galdetu zion behin bere alabak–. Behin eta berriz honaino etorri nahi duzu, baina, hemen zaudela, begiratzean atsekabetzen zara.

LIVEWORKSHEETS

Aitak ezpainak estutu zituen eta sudurretik arnasestuka hasi zen, baina ez zion erantzun.

Biharamunean, Waldik seme-alaba guztiei eskatu zien lagun egitea paseoan: errebelazio garrantzitsu bat egin nahi zien.

Goraka begiratu zuen –zeruari oroimenak hutsik ez egitea eskatu izan balio bezala– eta, hitzak etenda eta ahotsa nekaturik, istorio ilun bat kontatzen hasi zitzaien; seme-alabek ez zuten kontakizun haren arrastorik ere.

Behin batean, gazte bitxi eta misteriotsu batek hiru udareondo eskaini zizkion nire aitari. Itxuraz ez ziren bereziak. Hala ere, gazteak esan zion landare liluragarriak zirela, Edengo lorategiko hiru hazitatik sortuak.

Landare haien ordainetan diru asko ordaindu zuen aitonak, bidaian baitzegoen, aurreratu zuen itzulera, eta ni sortu nintzen egun berean landatu zituen.

Herrialdean ospe handiena zuten lorezainak bilatu zituen, eta hiru arbolatxo haiek zaintzeko agindua eman zien. Lana ahalik eta ongien eginagatik ere, landareak urtero zentimetro eskas batzuk luzatzen ziren.

Luzapen hura etsigarria bilakatu zen. Pentsatu izan zuten paradisuko hazien kontu hura iruzur hutsa zela.

Hamalau urte bete nituenean, nire aita –zuen aitona– bat-batean eritu zen eta, ustekabean, hiru udareondo horien sekretua esan zidan, ni zuei oraintxe kontatzen ari natzaizuena.

Atsekabeturik, pixkana-pixkana itzaltzen joan zen, zoriontasuna emanen zion edo gaztetuko zuen udare bakar bat dastatu gabe.

Azkenean, zendu zen komentziturik landatu zituen zuhaitz haiek ez zutela haiek erosteko ordaindutakoa balio eta nire etorkizunerako zantzu txarra zirela.

Hil-ohean, zuhaitz haiek nik neuk zainduko nituela esan nion eta hark amestutako udarerik lortzen ez banuen, iruzur egin zion hura zigortzeko ahalegin betea eginen nuela.

Jesús Ballaz, *El anillo fulgurante* [Egokitua].

LIVEWORKSHEETS

1. Zeri egiten dio erreferentzia "haren sudurreko haize-bortitzek" adierazpideak?

A. Arnasa hartzeak sortzen duen aireari.

B. Waldiren barre-algarek sortzen duten aireari.

C. Arnasa botatzeak sortzen duen aireari.

D. Haragi eroriko sudur-zuloei.

2. Zein ziren Waldiren sekreturik garrantzitsuenak?

A. Landareekin zerikusia zutenak.

B. Urrearekin zerikusia zutenak.

C. Bere negozioekin zerikusia zutenak.

D. Diamanteekin zerikusia zutenak.

3. Zergatik uste zuen Waldik emazteak sufrituko zuela sekretuaren berri izan balu?

A. Ulertzen zaila zen sekretua zelako.

B. Emazteak sekretuak gorrotatzen zituelako.

C. Berak ere sekretu horrekin asko sufritzen zuelako.

D. Emaztea arriskuan egongo zelako.

4. Zure ustez, zer egin beharko lukete Waldiren seme-alabek, aita hiltzen denean, udareondoak udarerik eman ez badu?

A. Zigortu udareondoa aitonari saldu ziona.

B. Udareondoa ureztatu udareak eman arte.

C. Udareondo hori kendu eta udareak emanen dituen beste bat ekarri.

D. Waldik bere aitari agindutako berbera egin.

LIVEWORKSHEETS

5. Esan ezazu X baten bidez ondoko baieztapen hauek egia (E) ala gezurra (G) diren:

	E	G
Waldi oso-oso pozik zegoen lorategiarekin.		
Agurearen osasunak txarrera egin zuen emaztea hil zenetik.		
Waldik bazuen inorekin partekatu gabeko sekretu bat.		
Istorioaren bukaeran Waldik zerbait eskatu zien seme-alabei.		

6. Waldi merkatari zaharra oso aberatsa zen. Zein zen aberastasunaren jatorria?

A. Gizon boteretsua zen aitarengandik hartua zuen herentzian.

B. Urrearen eta diamanteen salerosketan lortu zuen.

C. Lorezaintzan lortu zuen, hura baitzen haren pasio handia.

D. Aberastasunaren zati bat herentzian hartu zuen eta, bestea, berak irabazi zuen.

7. Waldiren zein seme-alaba konturatu zen haren kezkaz?

A. Amir.

B. Salom.

C. Aisha.

D. Ralik.

LIVEWORKSHEETS

8. Zein ziren "*nahigabearen*" zergatiak?:

A. Waldiren gero eta aje larriagoak.

B. Seme-alaben etorkizunaz kezkatuta egotea.

C. Lorategiko zerbaitek atsekabea sortzen zion.

D. Negozioak alde batera utzi zituelako.

9. Waldik zerbait esan nahi die seme-alabei. Presa handia du...

A. Landareen gainean dakiena haiei esateko.

B. Negozioen, hornitzaileen eta bezeroen berri emateko.

C. Lorategian dituen askotariko landareak erakusteko.

D. Zaharminaren zergatia zein den adierazteko.

10. Zer adinekin izan zuen Waldik hiru udareondoen sekretuaren berri?

.....

LIVEWORKSHEETS